




Gueñesko batzokira joan da Eguberriko loteriak ekarritako sari handiena / 8



Ikastolen pribilegioak laster amaituko direla dio Fernando Buesak elkarrizketan / 6-7



Elgorriagak ASOBAL Koparako txartela lortu du Barcelonari irabazi ondoren / 19

Egunkaria

EUSKALDUNON

Igandea, 1991ko Abenduak 22 / II. urtea / 325. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 4,5 libera

BERTSOLARITZA

Gipuzkoako finala gaur Belodromoan

Gaur erabakiko da Gipuzkoako bertsolari txapela nork eramango duen, goizeko 11etan Donostiako Anoeta belodromoan hasiko den finalean. Lizaso, Euskitze eta Egafia dira faborito nagusiak. / 25-26

SESB ehortzi eta EIK sortu dute 11 errepublikak

Soviet Batasuna osatzen zuten hamabost errepubliketatik hamaikak Estatu Independienteen Komunitatearen (EIK) sorrera eta Soviet Batasunaren desagitea sinatu zuten atzo Alma Ata (Kazakhstan) hirian egingako bileran. Hamaika lehendakariak Mikhail Gorbaxovi gutun bat bidaltzea erabaki zuten, lehendakariak soviatarra ere desagertu egin dela adierazteko. Baltikoko hiru errepublikak eta Georgia baino ez dira geratu Komunitate berriatik kanpo, baina Georgiak aurrerago bertan sartzea erabaki dezake.

Arma nuklearrak aginte bakar baten kontrolpean ipintzea erabaki zuten EIK-ko agintariek, eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki soviatarra, Ieltsinek nahi bezala, Errusiak beteko du. / 15

Athletic zulora itzularazi zuen Valenciak (2-3)

Athleticek galdu egin zuen atzo Valencian kontra San Mamesen (2-3). Lehenengo zatia markagailua alde zutela amaitu bazen ere (1-0, Garitanok penaltiz), 2. zatian valenciarrek nagusitu ziren. Bost minutuko tartean bi gol egin zituzten Eloy eta Penev-ek (penaltiz), eta hirugarrena Fernandok sartu zuen Iruren huts bati esker. Azken gola, denboraz kanpo, Zigandarena izan zen.



Hil honen azken egunean 102 urte betetzeko zen Joxemiel Barandiaran.

JOSE SIMAL

On Joxemiel, agur

Ataungo herrian emango zaio gaur lurra Barandiaranen gorpuari



Joxemiel Barandiaran etnologo eta antropologo ataurdarra atzo hil zen, 101 urte zituela, goizaldeko bostetan, Ataungo Sara bere base-rian. Azken arnasa hartu zuen arte, hurbileneko senide eta lagunez inguraturik egon zen maisu zaharra. Ataungo hilerrian emango zaio gaur lurra Barandiaranen gorpuari. Aurretik, arratsaldeko 4.30etan, hileta elizkizunak egingo dira San Gregorio eliza nagusian.

Joan den astearte eguerdian hasi zen Joxemiel Barandiaranek azkenean ezin gaititu izan duen krisia. Donostiako Arantzazuko Ama eritxera eraman zuten, zentzumena ia-ia erabat galduta eta arnasa hartzeko zailtasun handiak zituela. Hala



Gaur egingo dira hileta elizkizunak. CARLOS VILLAGRAN

ere, arratsaldean onera egin eta Ataungo bere etxera eraman zuten berriz, baina herenegun arratsaldean arnas-bihotz gutxiegitasuna larriagotu egin zitzaion, eta medikuek esperantza galdu zuten. Elizakoak hartu eta gauean, apurka apurka itzalduta egin zen Ataungo maisu handia, harik eta gaueko bostak inguruan hil zen arte.

Hil kapera Barandiaranek lanerako erabili ohi zuen gelan ezarri zuten atzo goizean, antigoaleko hiltzapi baten gainean eta era zaharreko haltzariz inguraturik. Kultura eta politika munduko jende asko pasatu zen egun osoan zehar hil kapera horretatik, ikerlari ospetsuari azken agurra emateko. Hil honen azken egunean 102 urte betetzeko zen Joxemiel Barandiaran. / 21-24

BESTERIK

P O L I T I K A

EE «indarberitzeko» V Kongresua egingo dute ofizialek datorren otsailean / 4

G I Z A R T E A

Intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zuten atzo Baionan / 8

E K O N O M I A

Arrasateko kooperatiba taldeak Korporazio bilakatzea erabaki du III Kongresuan / 12

K I R O L A

Reala A Coruña eta Osasuna Sevillara, etxetik kanpo garaipen bila / 19

EGUNKARIA k 85 pezeta gaur

Gaurko egunez, Hego Euskal Herrian ohizkoa denez, 85 pezetan salduko dira egunkariak. Igoera horrekin, bikoiztu egiten da Eguberriak direla medio egunkari saltzaileei eskaintzen zaien komisioa. Ipar Euskal Herrian ez dago salneurri aldaketarik.